



Azala.

Estalduraren larruak hutsune zabalak eta intsektuek egindako zuloak ditu. Oso zikina eta hainbat arrazoirengatik ilundua dago. Azpimarkatzeko: koipe eta zikinkeria nahasizko geruza, hondar organiko solidoak eta hezetasun zurgatuak sortutako orbanak. Bizkarrean, zinta autoitsaskor oxidatua.

Cubierta.

La piel del revestimiento presenta extensas lagunas y orificios de insectos. Muy sucia, está oscurecida por diversas causas. Destacaremos: una capa mezcla de grasa y suciedad, depósitos orgánicos sólidos y manchas de humedad absorbida. En el lomo cinta autoadhesiva oxidada.



Azala.

Zurezko azalak eta estalduraren bizkarra, oso hauskorrak.

Cubierta.

Tapas de madera y lomo del revestimiento, muy frágiles.

FITXA TEKNIKO / FICHA TÉCNICA

- Inprimatzailea / Impresor: Bonetus Locatellus.
- Egilea / Autor: Nicolaus de Lyra.
- Izenburua: Postilla...super vetus et novum testamentum.../ I. liburukia
Título: Postilla...super vetus et novum testamentum.../ tomo I
- Teknika: Inprimaketa tipografikoa eta paper gaineko hozkadura. Koadernaketa gotiko-mudejarra eta azal osoalarruzkoa, gofratuz apaindua.
Técnica: Impresión tipográfica y entalladuras sobre papel. Encuadernación gótico-mudejar en piel a toda pasta con decoración gofrada.
- Data: Venezia, 1489ko abuztuaren 4a.
Fecha: Venecia, 4 de agosto de 1489.
- Jatorria: Vitoria-Gasteizko Teologia Fakultateko Liburutegia (Araba).
Procedencia: Biblioteca de la Facultad de Teología de Vitoria-Gasteiz (Álava).
- Zaharberitze lanak: Zaharberrikuntza Zerbitzua.
Euskara, Kultura eta Kirol Saila.
Restaurado por: Servicio de Restauraciones.
Departamento de Euskera, Cultura y Deportes.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



ONDAREAREN BERRESKURATZEA
RECUPERACIÓN DE PATRIMONIO

NICOLAUS DE LYRAREN BIBLIA INPRIMATUA
BIBLIA IMPRESA DE NICOLAUS DE LYRA

Nicolaus de Lyraren Biblia

Pieza hau, gainerako ondare bibliografikoa bezala, hainbat materialek osatzen dute. Kasu honetan, paper berjuratuak -liburuaren gorputzean- eta koadernaketaren elementuek osatzen dute: haritzaren zurrezko azalak, zekortxo larruaren estaldura gofrotua, letoiurtuko krisketak, lepamagal azalean egindako lau nerbioren gaineko jostura zuzena (bi zuntzeko jute hariaren bitartez). Animalien gelatinarekin kolatutako liburu-bizkarra, pergamino banden eta liburuaren azaletan jarritako eskuz jositako burualdeen bidez sendotua. Babesorriak, liburuaren gorputza bezala, paperezkoak. Testua eta hozkadura, inprimaketa tipografikoko tintaz eginak.

Objektu guztiek, denboraren poderioz, jatorrizko itxura aldatzen duten prozesuak jasaten dituzte. Aldaketa horietako batzuek ez dakarte ondoriorik, baina beste batzuek, besteak beste kasu honetan egindakoen, objektu horien erabilera zailtzen duten erresistentzia eta informazio galerak dakartzate.

Pieza oso hondatua zegoen. Aldaketen arazoak hainbat dira. Aldaketa fisikoak azpimarratuko ditugu; izan ere, erabilerak berak larriagotu egin ditu, mantentzeko oinarritzko elementuek huts egin ahala. Paperaren eta egurrezko azalen gaineko hezetasunaren eragina aipatu beharra dago, zeren eta, orbanegain, intsektu liburuzaileek eta mikroorganismoek eraso egin zezaten eragin zuen. Azalak erabat zulatuta agertzen ziren, eta galera handiak zituzten, bai eta apurtutako zatiak ere; bestalde, larrua kaliptra gabe agertzen zen eta atzealdeko azalaren heren bat galduta. Liburu-bizkarra -oso hauskorra-, ugertutako zinta autoitsaskorrez estalia, eta horrek larrua erabat iluntzen zuen. Muntaketa sistema apurtuta zegoenez, liburuaren gorputza eta estaldura erabat bananduta

Biblia de Nicolaus de Lyra

Esta pieza, al igual que el resto del patrimonio bibliográfico, está constituido por muy diversos materiales. En este caso, papel verjurado para el cuerpo del libro, como todos los elementos de la encuadernación: tapas de madera de roble, revestimiento en piel de becerrillo gofrada, broches de latón calados, costura continua realizada sobre cuatro nervios en piel de badana con hilo de yute de dos cabos. Lomo encolado con gelatina animal reforzado con tiras de pergamino y cabezadas cosidas a mano pasadas a las tapas. Las guardas, al igual que el cuerpo del libro de papel. El texto y las entalladuras realizadas con tintas de impresión tipográficas.

Todos los objetos sufren a lo largo del tiempo una serie de procesos que van modificando su apariencia original. Parte de estos cambios no tienen consecuencias, pero otros como el caso que presentamos supone pérdidas de resistencia y de información que dificultan su uso.

La pieza estaba muy deteriorada. Siendo las causas de alteración diversas. Destacaremos las denominadas físicas pues, como consecuencia del propio uso se hacían más graves a medida que han ido fallando los elementos básicos para su conservación. Hay que citar el efecto de la humedad sobre el papel y las tapas de madera que además de manchas propició un intenso ataque de insectos bibliófagos y microorganismos. Las tapas aparecían totalmente perforadas de galerías con importantes pérdidas y partes rotas, al igual que la piel sin cofias y 1/3 de la tapa del reverso perdida. El lomo- muy fragil- cubierto de cinta autoadhesiva oxidada que oscurecía fuertemente la piel. Al estar roto el sistema de montaje, el cuerpo del libro y la cubierta estaban totalmente separados. En cuanto al papel son los primeros bifolios y los



Bizkarra.

Liburuaren gorputza eta azala erabat bananduta. Muntatze sistema osatzen duten elementuak, hau da, hariak, nerbioak, pergaminozko indargarriak eta babesorriak deseginda, puskatuta edo kolagabetuta daude. Jostura ere hautsita dago.

Lomo. Cuerpo del libro y cubierta totalmente separados. Los diversos elementos que componen el sistema de montaje: cabezadas, nervios, refuerzos de pergamino y guardas están desechos, partidos o desencolados. La costura igualmente rota.



Azal sendotuak eta txertatuak.

Behatu azalak liburuaren gorputzarekin lotzeko erabilitako nerbio eta hariak pasatzea errazteko egindako zuloak eta ildaskak. Ertzak alakatuta daude.

Tapas consolidadas e injertadas.

Obsérvense en los orificios y surcos abiertos para facilitar el paso de los nervios y cabezadas utilizados para unir las tapas al cuerpo del libro. Los cantos están biselados.



Liburuaren gorputza eta babesorriak.

Atzealdeko babesorriaren arteza. Mikroorganismo eta intsektuen eraginez galdutako zatiak, zikinkeria eta hezetasun orban biziak; gainera, mikroorganismoen pigmentazioak eta larruaren bueltak ukitzen egonda sortutako oxidazioak.

Cuerpo del libro y guardas.

Recto de la guarda del reverso. Pérdidas por la acción conjunta de microorganismos e insectos, suciedad y fuertes manchas de humedad además, pigmentaciones de microorganismos y oxidaciones por contacto con las vueltas de la piel.



Bizkarra.

Jostura eta muntatze sistema berregin dira, azalen eta bizkarraren estaldura berria kolaz itsatsi baino lehen.

Lomo.

Costura y sistema de montaje rehechos, antes de encolar el nuevo revestimiento de piel que cubrirá las tapas y el lomo.

zeuden. Paperak direla eta, lehenbiziko eta azken hostobikoak dira hauskorrenak, bada, intsektuen zuloek galera handiak eragin baitzituzten; gainera, horri mikroorganismoen aurreko ekintza gehitu behar zaio, pigmentazioz zikindu eta egitura hondatzeagatik ahuldu baitzuen.

Tratamendua dela eta, honakoa azpimarratu behar da: babesorria atzealdetik bereiztean, eskuz idatzitako hostobikoaren hondarrak aurkitu ziren. Mantendu egin da, izan ere, atzeko azalari itsatsitako babesorri gisa erabili da. Horrela, bada, agerian utzi da lehen ezkutuan zegoen babesorriko orrialdeko bertsoa -eskuizkribua ere bai-. Erretxina sintetikoaren bidez alderdi galdutako zehatz finkatu eta mentatu ondoren, jatorrizko azalak berreskuratu ziren. Estaldura garbia eta hidratatua gari almidoiaz itsatsi zen, larruzko estalki berri baten gainean. Berriro ere koadernatu zen eta, horretarako, piezaren kodikologia elementu guztiak mantendu eta antzeratu ziren. Paperari hautsa kendu eta garbitu, mekanikoki mentatu eta finkatu zen. Papera lehortu zenean, koadernoak antolatuta ziren eta prentsara eramanez, bertan jos zezaten. Esku hartzen amaitzeko, kutxa bat egin zen, ongi mantentzeko.

Horren guztiaren emaitza oso egokia izan zen, izan ere, galdutako funtzionaltasuna berreskuratzea ekarri zuen eta galzedila eragotzi.



Incunable zaharberritua.

Koadernazioaren krisketetatik, uhala eta haietako bakoitzaren lotura galduta zeuden. Gainerako elementuek gorde egin dira.

últimos los más frágiles pues las galerías de insectos habían ocasionado múltiples pérdidas, unido a la acción previa de los microorganismos manchándolo con pigmentaciones y debilitándolo por descomposición de su estructura.

Del tratamiento destacar que, al separar la guarda del reverso se encontraron restos de un bifolio manuscrito. Se ha conservado, utilizándolo como guarda pegada a la contratapa, dejando visible el verso del folio de guarda -también manuscrito- antes oculto. Tras una minuciosa consolidación e injertación con resina sintética de las zonas perdidas se recuperaron las tapas originales. El revestimiento limpio e hidratado se pegó con almidón de trigo sobre una nueva cubierta de piel. Sé rehizo la encuadernación respetándose e imitándose todos los elementos codicológicos de la pieza. El papel, desempolvado, lavado, injertado mecánicamente y consolidado. Seco, se montaron los cuadernillos y se dejó en prensa para su cosido. La intervención finalizó con la confección de una cajacustodia de conservación.

El resultado final, muy satisfactorio, ha permitido recuperar la funcionalidad perdida y evitar su pérdida.

Incunable restaurado.

De los dos broches de la encuadernación, la correa y el enganche de uno de ellos estaban perdidos. El resto de elementos se ha conservado.